

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TELEBISTA-PROGRAMEN MERKATARITZA-SUSTAPENA ETA -USTIAKETA	Iraupena	40
		Baldintzatua	
Kodea	UF0371		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produkzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebista-produktuaren lanerako prozesuen kontrola	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Telebistako produkzio baten lanerako planaren segimendua (Zeharkakoa)	Iraupena	40
	Ikus-entzunezko lanak produzitzeko araudiaren kontrola		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0209_3 TELEBISTA-PRODUKTUAREN LANERAKO PROZESUAK KONTROLATZEA ETA AZTERTZEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Telebistako produkzioaren sektorean garatutako sustapen-ekintzak aztertzea.

- E1.1 Telebista-industrian sustapen-tresnatzat erabiltzen diren publizitate-bitartekoak, -euskarriak eta -formak deskribatzea.
- E1.2 Sustapen-bitartekoak enpresaren helburuekin eta xede-publikoarekin erlazionatzea.
- E1.3 Komunikabide-plan baten prestakuntza zehazten duten aldagaiak aipatzea.
- E1.4 Publizitate-kanpaina baten faseak ezagutzea eta kontrastatzea.
- E1.5 Telebista-programa bat sustatzeko materialak aipatzea.
- E1.6 Harreman publikoetarako teknika nagusiak deskribatzea.
- E1.7 Marketin-estrategia batean komunikabideek duten garrantzia arrazoitzea.
- E1.8 Ikus-entzunezko proiektu batetik abiatuz, haren sustapen-kanpaina egiteko helburu eta bitarteko egokienak definitzea.

A2: Telebista-programen merkataritza-ustiaketa aztertzea.

- E12.1 Telebista-programen merkataritza-ustiaketarako forma nagusiak deskribatzea.
- E12.2 Estatuko eta nazioarteko merkaturako salmenta-egiturak identifikatzea, eta telebista-merkatuen tipologia nagusiak aipatzea.
- E12.3 Ikus-entzunezko industriaren nazioarteko azoka eta merkatu nagusiak aipatzea, merkatuen ildo eta ezaugarri nagusiak identifikatuz, eta haien ezaugarriak euskarriaren arabera erlazionatuz.
- E12.4 Telebista-merkatuen eraso- eta defentsa-politikak deskribatzea.
- E12.5 Irudiak ustiatzeko eta/edo kontsumitzeko modu berrien eta merkaturako teknologia berrien eragina baloratzea.
- E12.6 Ikus-entzunezko programen banaketaren funtzionamendu-egitura eta oinarri dituen elementuak deskribatzea: telebista-instalazioak, salmenta- eta banaketa-agenteak, ordezkariak, sare ofizialak eta alternatiboak, etab.
- E12.7 Europako Batasunak telebista-industria sustatzeko dituen ekimenak eta laguntzak deskribatzea.
- E12.8 Telebista-produkzioko inbertsioa berreskuratzeko amortizazio-sistemak identifikatzea eta kontrol-mekanismoak deskribatzea.
- E12.9 Ikus-entzunezko produkzioa ustiatzeko bideak identifikatzea, eta irudiak ustiatzeko eta kontsumitzeko formula berriak ezagutzea.
- E12.10 Pakete edo programa errealizatu simulatuetatik abiatuz, ikus-entzunezko merkatu edo azoka batean txertatzeko kasu bat diseinatzea.

Edukiak

1. Sustapen-ekintzak

- o Sektorean sustapenerako erabiltzen diren tresnak.
- o Publizitate-kanpainak.
- o Harreman publikoen oinarritzko teknikak.
- o Publizitatearen bitarteko- eta estrategia-plana. Kontzeptua eta elementuak. Marketin- eta negoziazio-estrategiak. Eragiteko estiloak.

2. Programen banaketa eta emanaldia

- o Telebista-programak saltzeko egiturak. Telebistako nazioarteko jaialdiak eta merkatuak.

- o Telebista-produktuen merkataritza-zikloa.
- o Banaketa-enpresak.
- o Inbertsioaren amortizazioa telebista-produkzioan.
- o Telebista-programak ustiatzeko leihoak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0370 Telebistako produkzio baten lanerako planaren segimendua

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza